

Hizkuntz ikasleei lagundu ikaskuntzaz gogoeta egiten*

Anita Wenden

New Yorkeko Columbia Unibertsitatean hizkuntz programa amerikar batean ingelesa bigarren hizkuntzatzat ikasten ari ziren 34 ikasle nagusiri egindako elkarrizketa erdi-egituratuaren azterketak erakutsi zuenez, uste garbiak zeuzkaten bigarren hizkuntza ikasteko moduari buruz. Are gehiago, ematen zuen uste horiek bazutela eraginik beren ikaskuntzari laguntzeko egiten zuten guztian. Labur azalduko dira uste horiek. Gero, modulu-multzo bat deskribatuko da; modulu horiek, bigarren hizkuntza baten ikasleei, "ikaskuntzaz gogoeta egin dezaten" laguntzeko erabil daitezke, honela beren usteak aurkitu eta ikuspegi alternatiboak hausnar ditzaten. Azkenik, iharduera horien hezkuntz balioaz hitz egingo da.

Sarrera

"...Ingelesezt hitz egin eta irakurtzean datza gakoa. Negozio-ikastaro bi egin nituen: mikro-ekonomia eta kontabilitatea. Oso esperientzia ona izan zen. Irakurri, ikasi, klaseetan entzun eta oharrak hartzen nituen ingelesez. Gaiaren esanahiaz pentsatzen nuen. Ez nuen hizkuntzaz pentsatzen. Ingelesa berez, naturalki, ikasten saiatzen nintzen..." *Miguel*

"...Korean hamar urtez ikasi nuen ingelesa... Gramatika asko ikasi genuen; beraz, Estatu Batuetara etorri nintzenean, banekien gramatika eta irakurtzeko gai nintzen, baina ezin nuen erraz hitz egin. Edonola ere, gramatikazko oinarria garrantzitsua da. Hori gabe ezin duzu aurrera egin. Mugatuta egongo zara. Hobe klasera ere joatea. Ikastera bultzatzen zaitu eta sistematikoa da..." *Eun Jin*

"...Nire ustez, hizkuntz hobekuntzan bada herentziazko zerbait... Ingelesa ikasteko geure gaitasun pertsonala da garrantzitsuena. Nire kasuan, ez dut gaitasun pertsonalik; beraz, denbora asko beharko dudala pentsatzen dut... ez dago ikasbide egokirik nire ikaskuntza bizkortzeko..." *Ryuichi*

"...Helduekin lan egitean neukan teoriaren antzekoa da nire teoria. Umeak bezalako bihurtzen dira eskolan daudenean... atzera egiten dute. Neuri gertatuko zitzaidanean, ez kezkatzea erabaki nuen. Baina halere ez zen erraza egoera jasan eta aurrera egitea..." *Cida*

Aurreko aitorpen hauek talde bateko 34 hizkuntz ikasleen usteen adierazgarri dira, beren hizkuntz ikaskuntza nola "autozuzentzen" zuten galdegin zitzaienean emandakoak. Elkarrizketaturiko ikasle gehienek ondorengo uste hauetakoren bat edo berauen konbinazioen bat zuten:

Berez ikastea

Hau da Miguelek uste duena. Beronen eritziz, suertatzen zaizkion gizarte-testuinguruetan komunikatzeko erabiltzea da hizkuntza ikasteko modurik onena. Egoera horietan, berak normalean ez du hizkuntz formaz edo ikaskuntz xedeez pentsatzen. Komunikazioa da azpimarratzen duena. Beraz, praktikatzeko aukera guztiez baliatu beharko lukeela pentsatzen du, eta ez arduratu akatsak egiteaz. Ahal duen neurrian, jatorrizko hizkuntzan pentsatzea ebitatzen du. Miguelentzat eta bera bezalako beste ikasle batzuentzat, prozesu inkontzientea da hizkuntz ikaskuntza.

Sistematikoki ikastea

Eun Jin-ek uste duena da hau. Hizkuntza “urratsez urrats... errazetik zailagora” ikasi beharko litzatekeela uste du, eta horregatik aholkatzen du hizkuntz ikastaro formalak egitea. Halaber, urratsez urrats ikasteak gramatikaz eta lexikoaz—hizkuntzaren eraikuntz blokeez—hastea esan nahi du. Beste era batera esanda, hizkuntza ikasteak berari buruz ikastea esan nahi du: nola funtzionatzen duen ulertzea. Hizkuntza komunikatzeko erabiltzea bigarren mailakoa da. Jakina, ez du gutxienesten praktikaren garrantzia, baina ikaskuntza azpimarratzen du: ikasitako gramatika eta lexikoa gogoratzen lagunduko dio praktikak. Azkenik, Eun Jinek, eta bera bezalako beste ikasle batzuek, hizkuntz ikaskuntza prozesu kontzientea dela pentsatzen dute. Horregatik, hizkuntzari buruz informazioa “hartzeko” beti prest egotea gomendatzen dute. Mentalki beti ihardunean egotearen garrantzia azpimarratzen dute, hau da, hitz, soinu eta egitura berriak nolabait ere manipulatzeko edo eraldatzeko, ulertu eta gogoratu ahal izateko.

Faktore pertsonalak garrantzitsuak dira

Uste honetakoak dira bai Ryuichi eta bai Cida. Pentsatzen dute norberaren ezaugarri jakin batzuek erraztu edo eragotzi egiten dutela hizkuntz ikaskuntza. Hizkuntz gaitasunaren eragina aipatzen du Ryuichik, eta Cidak auto-kontzeptua. Beste ikasle batzuek beren sentimenduak, ikasteko erarik gogokoena, nortasuna edo gizarte-rola aipatu zituzten.

Halaber, elkarrizketek erakutsi zuten uste hauek isladaturik zeudela hizkuntz ikaskuntzarekiko ikasleek zuten planteamenduan, honetan sartuz 1/ erabiltzen zituzten estrategi motak¹; 2/zeri jartzen zioten arreta; 3/ikaskuntz ihardueren eta hizkuntza erabili edo praktikatzeko aukera ematen zieten gizarte-testuinguruaren eraginkortasuna ebaluatzeko erabiltzen zituzten erizpideak; eta 4/nora bideratzen zuten beren estrategien erabilera (Wenden 1984). Beste era batera esanda, ikasle haien kasuan, bazirudien beraien usteek nolabaiteko lojika bezala funtzionatzen zutela, ingelesa ikasten beren buruei laguntzeko egiten zutena determinatuz —kontziente edo inkontzienteki.

Ikasle hauek tipikoak direla onartuz, hizkuntz ikaskuntzari buruz usteren bat ikasle gehienek izatea espero behar dugu, nahiz eta uste horiek beti ez izan agian argiak edo erraz ohartzeko modukoak. Hau horrela denean, ikasleen usteak zeintzuk diren eta hizkuntz ikaskuntzarekiko planteamenduan zer eragin duten aurkitzen saiatu beharko lukete irakasleek. Garrantzitsua da, halaber, ikasleek aukera izatea “beren ikasprozesuari buruz gogoeta egiteko”, honela beren usteez jabetu eta ikasteko egiten dutenari uste horiek nola eragin diezaioketen kontura daitezen. Azkenik, ikuspegi alternatiboak ere aurkeztu beharko litzazkieke.

Helburu orokor hauekin diseinaturiko zortzi moduluko unitate bat azaltzea da artikulu honen xedea. Moduluen helburua da, halaber, mintzamenean erraztasuna lortzeko ikasleari aukera ematea. Beste modu batera esanda, gure ikasleei bigarren hizkuntza nola *ikasi* behar den ikasten laguntzea eta nola *erabili* behar den ikasten laguntzea integratu egin daitezkeela erakusten dute. Modulu bakoitza osatzen duten helburuak, baliabideak eta prozedurak azalduko dira. Gero, bigarren hizkuntzaren ikasleentzako horrelako iharduerak izan lezaketen balioaz ere hitz egingo da.

1. Modulua *Usteak* (ahozko ekintza)

Helburuak – Ikasleek usteen jatorria eta funtzioa hausnartzea.
– Ikastetxean arrakasta izateari buruz dituzten usteak aztertzea.

Prozedura

- 1 Banatu ikasleak hiruak.
- 2 Ikasleek eztabaidatu eta adostasuna lortu behar dute nola osatu ondorengo esaldi hauetakoren bat:
 - a *Ikastetxean arrakasta izateko, zera egin behar da*.....
 - b *Ikastetxean arrakasta izan nahi bada*,
- 3 Taldeek beren eritziak eman ahala, egin zerrenda arbelean.
- 4 Ikasleek identifika ditzatela eritzien arteko antzekotasun eta desberdintasunak.
- 5 Galdetu ikasleei nola mamitu dituzten eritzi horiek (esate baterako, esperientzia pertsonalez ala itzal handiko beste batzuen eritziengatik) eta eritzi horiek nolako eragina duten beraian (esate baterako, baldintzatzen eta gidatzen dute jokabidea?).
- 6 Eman termino “teknikoa” eztabaidagai izan duten horrentzat: esperientzia eta beste pertsona errespetatu batzuen eritzietan oinarrituriko eritzi horiek –jokabidean eragina dutenak–*usteak* deitzen dira.
- 7 Esan beraiei hizkuntz ikaskuntzari buruz dituzten usteak eztabaidatuko dituztela ondorengo klaseetan.

Ohar bereziak

- Oharterazi ikasleak, 2. puntuko esaldia osatzerakoan, uste *sendoa* adierazten duen eritziaz egin dezatela.
- Beste gai batzuk ere aukera daitezke esaldi-burutzapenetik (2 a eta 2 b). Edonola ere, zure ikastaldekoentzat ezagun eta ohizko den helbururen bat izan behar du.

2. Modulua *Bizikletan ibiltzea eta hizkuntz ikaskuntzaren artea* (entzunketa/idazketa)

Helburua Ikasleek ikaskuntzari buruzko beren usteak eztabaidatzea.

Baliabideak – *Bizikletan ibiltzea eta ikaskuntzaren artea* delakotik pasarte bat (ikus 1. eranskina). (Ikaskuntzari buruzko edozein artikulu erabil daiteke, baina zirikatzailea behar du izan.)

- Aurreko pasartean oinarrituriko entzun-gida.

- Prozedura*
- 1 Lexiko aldetik pasartean egon litezkeen hitz ezezagunak azaldu.
 - 2 Kontatu pasarteko gertakari edo kasua. (Ez irakurri, kontatu baizik.)
 - 3 Ikasleek oharrak hartu eta, lehen kontaketa-aren ondoren, entzun-gidako galderei ahalik eta modurik osoenean erantzun behar diete.
 - 4 Kontatu bigarren aldiz pasarteko gertakaria.
 - 5 Lehen aldian harrapatu gabeko informazioaren bila entzungo dute ikasleek.
 - 6 Osatu erantzunak eta konparatu beste ikaslagunen batenekin.
 - 7 Erantzunei dagokienez, eztabaidatu ikasleentzat zer den garrantzitsua ikaskuntza arrakastatsurako.
 - 8 Ikasleak beren erantzunez baliatuko dira gertakari edo kasuaren laburpen txiki bat idazteko.

3. Modulua *Bizikletan ibiltzea eta hizkuntz ikaskuntzaren artea (eztabaida/idazketa)*

Helburua Ikasleek hizkuntz ikaskuntza beste mota bateko ikaskuntzekin konparatzea.

- Prozedura*
- 1 Banatu ikasleak binaka eta erabaki dezatela ados dauden ala ez ondorengo baieztapen hauekin eta zergatik:
 - Bigarren hizkuntza bat ikastea*
 - a bizikletan ibiltzen ikastea bezalaxe da
 - b konputagailua erabiltzen ikastea bezalaxe
 - c lagunak egitea bezalaxe.
 - 2 Talde txikietan hitz egindakotik ateratakoaren berri eman eta oinarritzat hartuko da, ikaskuntza guztiek amankomunean zer duten eta hizkuntz ikaskuntzari bakarrik zer dagokion zehazteko.
 - 3 Ikasleek gutun bat idatziko diote beren herrialdeko lagunen bati, hizkuntz ikaskuntzaren esperientzia azalduz; baita dituzten arazoak, hobetzeko egiten dutena, nola sentitzen diren horri buruz, etab. ere.

- Ohar bereziak*
- Berritoki ere, 1 puntuko gaiak iradokizun hutsak dira. Ikasleentzat garrantzi berezia duen edozein aukera dezake irakasleak.
 - Artxibatu ondo ikasleen gutunak, ondorengo beste modulu batzuetan erabiliko bait dira.
 - Atzerrira bidaien bat egiteko prestatzen ari diren ikasleei, oraindik ez badute “han bertan” hizkuntz ikaskuntzaren esperientziarik izan, iharduera-plan bat idazteko eska dakieke, beren hizkuntz ikaskuntza nola planteatuko duten adierazi behar dutelarik (gutuna idatzi ordez).

4. Modulua *Hizkuntza bat ikasteko, zuk egin beharko zenuke...? (irakurketa/eztabaida)*

- Helburuak*
- Ikasleek beste hizkuntz ikasle batzuen usteak aztertzea.
 - Uste horiek eta ikaskuntzari buruzko planteamenduak konpara ditzatela.

Baliabideak Ikasleen kontaktak ingelesa nola ikasi zuten adieraziz (ikus 2. eranskina). Miguelenak “berez ikastea”ren printzipioa azaltzen du. Eun Jin-enak, berriz, “sistematikoki ikastea”ren printzipioa.

- Prozedura*
- 1 Ikasleek etxean irakurriko dituzte bi kontaktak.
 - 2 Klasean, taldeka banatu eta hizkuntz ikaskuntzari buruz kontaketa horietako bakoitzak ematen duen aholkua adierazteko eskatuko zaie, eta biak konparatzeko.
 - 3 Eztabaida, ondorengo puntu hauetara laburbil daiteke, arbelean idatziz:
 - a printzipio edo gidabide nagusiak
 - b lexikoa ikasteko estrategiak
 - c jarri arreta (i) hizkuntzari (ii) esanahiari
 - d hizkuntz arazoak
 - e hizkuntza praktikatzeko estrategiak.
 - 4 Zure ikasleek beste bi ikasle horien printzipio edo gidabideak hausnartuko dituzte eta bakoitzaren usteak bilduko dituen baieztapen batean sintetizatzen saiatuko.
 - 5 Uste bakoitzak estrategietan, arreta-gorabeheretan eta arazoan ebaluazioan nolako eragina duen konparatuko dute ikasleek.

5. Modulua *Faktore pertsonalak garrantzitsuak dira*

Helburuak Faktore pertsonalek hizkuntz ikaskuntzarako duten garrantzia hausnartzea ikasleek.

Baliabideak Faktore pertsonalei buruzko galdesorta labur bat (ikus behegera).

- Prozedura*
- 1 Ikasleek beren eritzia emango dute beheko adierazpen horietako bakoitzari buruz, ondorengo hauetakoren bat idatziz: a) *bai*; b) *ez*; c) *agian*; d) *batzuetan*.

Ezin duzu ingelesa ongi ikasi
etsita sentitzen bazara
aspertuta bazaude
hizkuntz ikaskuntzarako gaitasunik ez baduzu
umetan ez bada
kultura ez baduzu ulertzen
zure ikasteko era ulertzen ez duen irakaslea baldin baduzu
nortasun egokia ez baduzu
anbiziotsua ez bazara
kultura axola ez bazaizu

zeure buruaz uste onik ez baduzu
denbora osozko ikaslea ez bazara
beste erantzukizunik baldin baduzu (lana, familia...)
irakasleak umetzat hartzen bazaitu.

- 2 Inkesta osotu ondoren, ikasleak bere erantzunak beste ikaslagun baten edo birenekin konparatuko ditu, bere eritzien zergatia azalduz.
- 3 Talde txikitako eztabaida hauen konklusioak ikastalde osoari jakin eraziko zaizkio eta, goian aipaturiko faktore horietatik, gehiengoaren ustez ikasprozesurako kaltegarriak zeintzuk diren finkatuko da.
- 4 Faktore hauei buruz klasean egindako eztabaidak hirugarren uste-sail bat formulatzera eramaten du, alegia, faktore pertsonalak garrantzitsuak direla.

Ohar berezia Galdesortaren helburua ondorengo faktore pertsonal hauek azpimarratzea da: sentimenduak, hizkuntz gaitasuna, adina, kultur oinarria, ikasteko estiloa, nortasuna, motibazioa, gizarte-rola eta autokontzeptua.

6. Modulua *Nire ustea da...* (irakurketa/eztabaida)

Helburua Ikasleek beren usteak zehaztea.

Baliabideak Ikasleen gutunak, hizkuntz ikaskuntzarekiko duten planteamendu edo ikuspegia azalduz (2. modulukoak).

Prozedura Ikasleek beren gutunak irakurriko dituzte beren usteak zeintzuk diren edo usterik duten ala ez zehazteko. Beren planteamenduak aurreko moduluan aztertutako bi ikasleen planteamenduekin konparatuko dituzte. Ea faktore pertsonalik azpimarratu duten ere ohartuko dira.

Ohar berezia Ikasleek dituzten usteen eztabaidan, irakasleak erne egon behar du aurreko materialetan azaldu gabeko usterik edo bere ikasleentzako berezia den usterik agertzen den ikusteko. Eta bere ikasleek uste bat baino gehiago badute ere ohartu behar du.

7. Modulua *Hizkuntz ikasle onaren definizioa* (irakurketa/eztabaida)

Helburuak

- Hizkuntz ikasle arrakastatsuen usteak aztertzea.
- Hizkuntz ikasle onak uste bakar batean baino gehiagotan oinarritzen direla ohartzea.
- Usteen eta planteamenduen arteko erlazioaz ohartzea.

Baliabideak

- Hizkuntz ikasle onaren definizioa (ikus 3. eranskina)
- Hizkuntz ikasle onaren definizioan oinarritutako irakurmen-gida.

Prozedurak

- 1 Ikasleek pasartea irakurri eta ulermen-gida osotuko dute klasea hasi baino lehen.

- 2 Klasean, bakoitzak gidari emandako erantzunak eta ikaslagunen batek emandakoak konparatuko dituzte eta, aurreko moduluetan aztertutako hiru usteetatik, hizkuntz ikasle ona zeinetaz baliatzen den erabakiko dute. (Izan ere, badirudi hirurak izaten dituztela gidari.)
- 3 Talde-lanaren ondorengo klase-eztabaida honako hauetan ardazu beharko litzateke: a) ea uste-multzo jakin bat beste bat baino hobea den; b) ea usteek erlazorik duten xedekin edo ikasteko estiloekin; c) ea usteak alda litezkeen eta aldatu beharko liratekeen; d) zein uste duten gogokoen; eta e) usteek zer-nolako eragina izan lezaketen hizkuntz ikaskuntzarekiko planteamenduan.

- Ohar bereziak*
- Definizioa irakurtze-ariketatzat erabil daiteke, edo entzute-ariketarako oinarritzat. Edozein kasutan ere, irakasleak bere ikasleen mailara egokitu behar du. Definizioan aipaturiko estrategia ezberdinak gehiago zehaz daitezke adibideak erantsiz.
 - Hizkuntz ikasle onaren estrategiak askoz errazago zertu edo egitaratzen dira ingelesa bertako hizkuntza den esparruetan. Hortaz, garrantzitsua da ingelesa (atzerriko hizkuntzatzat) beren herrialdean ikasten ari direnek beren komunitatean leudekeen eta hizkuntz ikasle onaren jokabideari jarraitzeko aukera eman liezaieketen baliabideak aztertzea.

8. Modulua *Hizkuntz ikasle ona ote naiz? (irakurketa/idazketa)*

- Helburuak*
- Ikasleek beren planteamendua hizkuntz ikasle onaren planteamenduaz konparatzea.
 - Ikasleek beren planteamendua aldatuko duten ala ez, eta nola, finkatzea.

Baliabideak Hizkuntz ikasle onari buruzko galdesorta, 6. moduluan erabilitako irakurgaian oinarritua.

- Prozedura*
- 1 Ikasleek galdesortari erantzungo diote.
 - 2 Hizkuntz ikaskuntzarako jokabideen oraingo bilduma zabaldu behar duten ala ez, eta egitekotan nola egin, erabakiko dute.
 - 3 Idazlan bat egingo dute beren burua hizkuntz ikasle onarekin konparatuz, eta beren planteamendua, aldatzekotan, nola aldatzea pentsatzen duten adieraziko dute, eta ez badute aldatzeko asmorik, ezezkoaren zergatia azalduko.

- Ohar bereziak*
- Hizkuntz ikasle onaren portaera-deskribapen bakoitza galdesortako item bat izan daiteke. Eta item bakoitzaren ondoan, hori zer maiztasunez egiten duten adieraziko dute ikasleek: sarritan, noizean behin, gutxitan edo sekula ez.
 - Galdesortari nork bere kasa erantzun diezaioke, edota elkarren artean, batak besteari galdetuz.
 - Gida-eskema bat mesedegarri izaten da idazlana bideratzeko.

- Idazlanaren ordeaz, galdesortari buruzko eztabaida ikasleen bileretan egitea ere aukera dezake irakasleak.

Xede-taldeak

Ikastalde ezberdinekin eta era askotan sekuentziatuak erabil daitezke moduluak. Nik neuk hamabost asteko ikastaro baten lehenengo bi asteetan erabili nituen, aldi berean ESL programan eta unibertsitatean zebiltzan ikasleekin. Beste era bat, ekintzak ikastaro osoan zehar bana litezke, xede honetarako astean klase bat edo bi utziz. Unibertsitatean sartzear dauden ikasle, etorkin berri eta turistentzat hizkuntz ikastaro trinkoak ematen dituzten hizkuntz ikastegi eta murgiltze-programek era berean erabil ditzakete moduluak. Halaber, orientazio-programaren parte bezala ere erabil daitezke atzerriko hizkuntzan espezialdu nahi duten ikasleekin, berauen xede-hizkuntza mintzatzen den herrialdean egonaldiren bat egiteko asmotan dabiltzanean, bai beren kasa bai truke-programaren baten barnean joanda. Honelako hizkuntz orientazioa onuragarri gerta lekioko helburu profesionalekin bidaiatzen duenari ere.

Hezkuntz balioa

Gazte eta helduek hizkuntz ikaskuntzari buruzko beren usteak hausnar ditzaten erabiltzen diren ekintzen balioa honetan datza: ekintza horiek ikasle helduek beren hizkuntz ikaskuntzara ekartzen dituzten espektazio edo itxaropenak azaleratu ditzakete, aztertu, ebaluatu eta agian aldatu edo/eta modifikatzeko. Beren aurreko hezkuntz esperientzietan oinarrituz, batzuek biologia edo historia balitz bezalaxe planteatzen dute beren hizkuntz ikaskuntza. Beste nolabait esanda, edukinen ikastarotzat hartzen dute, eta beren ikastaroak hizkuntzari buruzko informazio berririk ez badie ematen, egonezina eta asperdura sortzen zaizkie. Ez dira beti konturatzen hizkuntza ikasteak, beroni buruz jakiteaz gain, erabiltzeko gai izatea esan nahi duela, eta puntu batetik aurrera kontua ez dela jakitea, praktika egitea baizik.

Bestalde, askok bere aurrerapena ikastaroan emandako denboraren arabera neurtzeko joera du. Beraiek matrikulaturiko programan lau ikastaro baldin badaude eta ikastaro horiek 48 lan-aste suposatzen badituzte, ezarritako denboraldi horretan ingelesa “ikasía” izatea espero dute; eta ez badute lortzen, hizkuntz gaitasun urria dutela pentsa dezakete beren buruaz. Noski, ikasleek badute eskubidea denboraldi jakin baten ondoren aurrerapenik espero izateko, baina aldi berean kontutan izan behar dute hizkuntza bat ikasteak denbora eskatzen duela, eta denboraldi hori ezberdina izango dela ikasle bakoitzaren arabera.

Baita ere, gerta liteke ikasleek ikuspegi mugatuak izatea ikasgelak eta ikasgelaz kanpoko gizarte-inguruneak hizkuntz ikaskuntzan duten funtzioaz. Gerta liteke ikasgelaz kanpoko gizarte-ingurunea ez hartzea beti hizkuntzari buruz ikasteko aukeratzat. Izan ere, ikasgelari eta ikasgelaz kanpoko gizarte-inguruneari elkarren kontrako rolak egozten zaizkie sarritan: lehena hizkuntzari buruz ikasteko hartzen da, eta bigarrena praktika egiteko.

Azkenik, ikasleek beren rolari eta irakaslearen rolari buruzko ikuspegiak ere ekartzen dituzte hizkuntz ikaskuntzaren esperientziara. Normalean, irakasleak ikasleraziko diela espero izaten dute, eta ahalegin horretan ez diote bere buruari oso rol aktibo edo autonomorik egozten. Eta ez dute horretarako beren gaitasunaz konfidantza handiegirik ere izaten.

Guzti hauek urtetan zehar izan ditudan ikastaldeek hizkuntza ikasterakoan agertu dituzten espektazio edo iguripenen adibideak dira. Ez dute ikastalde guztiek espero lezaketenenaren deskribapen osoa izateko asmorik. Baina arazoa zera da: helduak beren aurreko hezkuntz esperientzien eraginpean etorriko direla gelara, eta esperientzia horiek kontutan hartu beharko liratekeela, hizkuntzaren ikaskuntza/irakaskuntza elkarlaneko ahalegina izatea nahi bada.

The Modern Practice of Adult Education delakoan (1970:45), Malcolm Knowles-ek hau sujeritzen du: ikastaro, tailer edo beste hezkuntz ekitaldi baten hasiera aldera zerturiko esperientzia “desblokeatzailea” helduei “beren buruak objektibokiago ikuserazten eta gogoak aurreritzietatik askatzen” laguntzeko bide bat dela. Beste hitz batzuetan esateko, beraien esperientzia kontutan hartzeko modu bat da. Iharduera honen oinarrian dagoen suposamendua zera da: ikaslea hartzaileago bihurtuko dela berea ez bezalako ikaskuntz planteamenduekiko. Gainera, onarturik dago harmen edo errezeptibitate hori aurrebaldintza dela ikaskuntza eraginkorrerako. Hizkuntz ikasleak beren ikaskuntzari buruz dituzten usteak hausnartu eta ebaluatzeraz bultzatzen dituen unitate bat aipaturiko esperientzia “desblokeatzaile” horren adibide da.

Honela, geure usteak hausnartuz ikaskuntzaz gogoeta egiteari “metaezagutza” deitu izan diote ezagutza-psikologoek. Kontzeptu honen parametroak oraindik eztabaidagai badira ere (cf. Brown *et al.* 1982), onartua dago adierazten duen fenomeno garrantzitsua dela. Metaezagutzazko trebetasunik eza izan liteke arin atzeratutako haurren ikaskuntz eragozpenak eragiten dituen arrazoiatariko bat (Brown eta Palinscar 1982). Gainera, azterketek erakutsi dute ikaskuntz estrategiak erabiltzeko trebakuntza iraunkorragoa izaten zela, estrategien garrantziaz ikasleak informatu eta berauen eraginkortasun potentzialerako arrazoiak ematen zitzaizkienean (Brown *et al.* 1982).

Gure arteko gehienoi esperientziak erakutsiko zigunez, hizkuntz ikasle batzuk metaezagutzazko trebetasun oso zorrotzekin etortzen dira hizkuntz ikasketara. Kasu hauetan, berek dituzten usteei buruz gogoeta egiteak jada dakitena gehiago argitzen eta sailkatzen lagun liezaieke. Beste askok, ordea, metaezagutzazko trebetasunak askoz maila apalagoan garatuta izaten dituzte. Hauei beren ikaskuntza hausnartzen eta beren uste adierazigabeak artikulatzen laguntzen dieten ekintzek metaezagutzazko trebetasun garrantzitsu horiek garatzen lagundu beharko liekete eta, ondorioz, beren ikaskuntzaren kontrol handiagoa izatea ahalbidetu.

Azkenik, ikasleen ikasgaitasuna areagotzeko ekintzen garapenean gehiago konprometitu nahi duten irakasleentzat oinarria jartzen du modulu-sekuentziak. Hizkuntz ikasle onaren estrategiez irakurri eta eztabaidatzeak ikaskuntz estrategia eta ikasteko estiloari buruzko nozioen oinarritzko ezagutza emango die ikasleei. Beren hizkuntz arazoak diagnostikatzeak, beren ikaskuntz ekintzen emaitza ebaluatzeak, helburuak ezartzeak eta beren sentimenduekin moldatzen ikasteak (metaezagutzazko beste trebetasun batzuk hauek ere) duten garrantzia erakutsiko die. Beste nolabait

esateko, moduluak mesedegarri izan daitezke ikasle aktiboago eta dibertsifikatuagoa izaten laguntzeko beharrezko diren ikas-trebetasunei buruz ikasleen kontzientzia areagotzeko. Aldi berean, ekintza hauek diagnostikorako tresna bezala ere baliagarri izan daitezke ikasgelako irakasleentzat. Ikasleek ikaskuntzari buruz dituzten usteen eta gogokoen dituzten ikaskuntz estrategien argibide baliotsuak emango dizkiete. Horrelako datuak orientagarri izan daitezke bigarren hizkuntza bat "nola ikasi behar den" jakiten laguntzeko helburuaz ikasleentzat asmatzen dituzten ekintzak aukeratzerakoan.

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Oharra

- * Ingelesezt "Helping language learners think about learning", *ELT Journal* (40. bol., 1. zenb., 1986) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

© Oxford University Press 1986

- 1 Bi strategi mota daude: ikaskuntz estrategiak eta komunikazio-estrategiak. Ikaskuntz estrategiak honela definitzen dira: ikasmaterialen zuzeneko analisi, eraldakuntza edo sintesia eskatzen duen ikaskuntzan edo problema-ebazketan emandako urrats edo eragiketa mentalak, ezagutza metatu, berreskuratu eta erabili ahal izateko. Komunikazio-estrategiak hizkuntz ezagupenaren eta komunikatzeko asmoen artean desoreka dagoenean ikasleek erabiltzen dituzten teknikak dira.

Bibliografia

- Brown, A.L., J.D. Bransford, R.A. Ferrara, eta J. Campione.** 1982. *Learning, Remembering and Understanding*. Technical Report N° 244, Center for the Study of Reading, University of Illinois at Urbana-Champaign. Baita ere, J. H. Flavell eta E.M. Markman (eds.), *Carmichael's Manual of Child Psychology, Vol. I*. New York: Wiley and Sons.
- Brown, A.L. eta A. Palinscar.** 1982. "Inducing strategic learning from texts by means of informed, self-control training". *Topics in Learning and Learning Disabilities* 2/1: 1-18. (Ale berezia metaezagutzari buruz.)
- Knowles, M.** 1970. *The Modern Practice of Adult Education*. New York: Association Press.
- Wenden, A.** 1984. "Discovering the Theories of Second Language Learners". International TESOL convention, Houston, Texas-en aurkezturiko ponentzia.

1. eranskina

Bizikletan ibiltzea eta ikaskuntzaren artea

Robert Kraft-en izen bereko artikulutik moldatua da ondorengo hau.

Batzuetan bizikletaz joaten naiz eskolara. Noiz eta nola ikasi nuen? Bizikletaz ibiltzen nola ikasi nuen pentsatzen hasten naizenean, amak erosi zidan neska-bizikleta astun zuri-berdeaz oroitzen naiz. Zazpi urte nituen. Familiako gazteena nintzen eta txikiegia neben bizikletako pedaletara iristeko. Aitaren gozotegia hiru etxadi urrutirago zegoen. Egunean hainbat aldiz joaten nintzen haraino, eta aspertuta nengoen oinez ibiltzen. Gainera, ume txikiagoak ere ibiltzen ziren bi gurpilen gainean.

Zangalatraba jarri eta goian zegoen pedalean jarri nuen gorputzaren pisua. Erori egin nintzen. Igo berriro, eta hankaz gora berriro. Bizikleta gainera erori zitzaidan eta izterra urratu nuen. Baina ikasi egin behar nuen, eta gogor ekin nion beraz. Aste beterako nahikoa ongi ibiltzen nintzen. Gaur egun irakurtzen, idazten, eskiatzen eta etxean arropa-lehorgailua konpontzen ere badakit. Gauza horiek denak era berean ikasi nituen. Bada zerbait oso sinplea ikasteko era honetan. Zerbait jakiteko edo egiteko beharra nuen, eta beraz saiatu egin nintzen horretan. Gogorra zen eta mingarria batzuetan, baina arrakasta zuen.

Ikasgelan ikastea, ordea, ez zen bizikletan ibiltzen ikastea bezala. Sarritan pasiboki egoten nintzen eserita, klasea noiz amaituko zain. Batzuetan zerbaitekiko interesa pizten zitzaidan eta hartaz irakurtzen nuen. Ongi egiten nituen azterketak eta ikasle ona nintzela uste zuten denek, baina ahaztu egin ditut eskolan ikasitako gauza asko.

2. eranskina

Miguel ekonomi zientzietan espezializatzen ari zen Espainian. Ez zuen ingelesik ikasi irakaskuntza

ertainetan edo unibertsitatean; beraz, ez zekien batere ingelesik Londresera egin zuen bisitaldiaren aurretik.

Hamar aste eman nituen Ingalaterrako hegoaldean familia britainiar batekin. Ez nuen nahi atzerriko beste ikasle batzuekin bizi. Uste dut gauzarik onena dela, batez ere familiako partaidetzat onartzen bazaituzte. Harreman estua nuen familiarekin. Afalorduan hitz egiten genuen eta telebista ikusi bitartean ere ikusten genuenaz mintzatzen ginen. Dena naturalki. Eskolan ikasitakoa praktikatu ahal izaten nuen. Ondo zetorkidan hura, ingelesa klasez kanpo erabili eta ulertzea bait zen nire arazoa. Batzuetan, etxeko jaunak erabilitako hitzez baliatuz esaldiak egiten saiatzen nintzen. Egunkariak ere egunero irakurtzen nituen. Espainiari buruzko albisteak irakurtzen nituen. Espainiera-Ingelesa hizteirik ez erabiltzea erabaki nuen. Ezagutzen nituen hitzei begiratzuz ateratzen nuen esanahia. Ez nuen gramatikari buruz pentsatzen. Esanahia ulertzen saiatzen nintzen. Dena naturalki. Jatetxe batera joatean, jakiak eskatu beharra izaten nuen. Beraz, menuari begiratu eta horrela ikasten nituen hitzak.

1978ko udan, Berkeleyra joatea erabaki nuen. Klasea negargarria zen. Ez zen unibertsitateak antolatua. Ikasle espainolak bakarrik zeuden; ez zituzten ikasleak mailaren arabera banatzen, eta metodo kaskarra zuten irakasleek. Hilabeteren ondoren, unibertsitateko ikastaro batean entzule gisa matrikulatu eta bi mintegitara joan nintzen. Uda hura Kalifornian oso betegarria izan zen. Nire ingelesa Ingalaterran egon nintzenekoa baino askoz hobea zen. Gehiago ulertzen nuen eta errazago hitz egiten nuen. Egina nuen aurrerapena, baina ezin nuen neurtu. Dena oharkabea zen. Baina ohartuki edo kontzienteki informazioa lortu nahian ari nintzen beti. Iragarkiak irakurtzen nituen, irratiko iragarkiak ere entzun eta telebista ikusten nuen.

Artean banuen arazorik hitzak erabiltzen; beraz, nituen aukera guztiez baliatzen nintzen praktikatzeko. Hori da sekretua. Elkarriketean, solaskideak hitz egiten dizu eta zuk erantzun egin behar diozu. Gaiarekiko interes handia sortzen zaizu eta aurrez ikasitako hitzak gogoratzen dituzu. Berriak ere ikasten dituzu. Honela hobeto ulertzen duzu. Jakina, ez nuen atsegin akatsak egitea, batez ere mintegietan. Baina zeure akatsak direla eta, ez baduzu hitz egiten eta idazten, hogei urte itxaron beharko duzu zerbait esan aurretik. Hobe da hitz egitea.

Hurrengo udaberrian itzuli egin nintzen Estatu Batuetara eta 16 aste eman nituen unibertsitatean

Connecticut-en. Arazoa, campusa urruti zegoela hiritik eta, lehen urterdiaren ondoren, ikasle amerikar guztiek alde egin zutela. Ez zegoen praktikatzeko aukerarik. Ez nuen hori atsegin. Beraz, New Yorkera joan eta unibertsitateko ikastaroetan matrikulatzea erabaki nuen. Honela, ikaskide amerikarrekin hitz egin ahal izango nuen eta neure arloko liburuak irakurri. Praktikatu egin behar da ingelesa. Ingelesezt hitz egin eta irakurtzean datza gakoa. Negozio-ikastaro bi egin nituen: mikro-ekonomia eta kontabilitatea. Oso esperientzia ona izan zen. Irakurri, ikasi, klaseetan entzun eta oharrak hartzen nituen ingelesez. Gaiaren esanahiaz pentsatzen nuen. Ez nuen hizkuntzaz pentsatzen. Ingelesa berez, naturalki, ikasten saiatzen nintzen...

Eun Jin Koreatik Estatu Batuetara etorri zen senarrarekin, hau graduatuentzako programa batean zegoelarik matrikulatua. Ikasia zuen ingelesa Korean irakaskuntza ertainetan eta unibertsitatean eta, bere BA titulua eskuratu ondoren, ingelesa ikasten jarraitu zuen hizkuntz institutuetan eta bere kabuz.

Korean hamar urtez ikasi nuen ingelesa irakaskuntza ertainetan eta unibertsitatean. Gramatika asko ikasi genuen; beraz, Estatu Batuetara etorri nintzenean, banekien gramatika eta irakurtzeko gai nintzen, baina ezin nuen erraz hitz egin. Edonola ere, gramatikazko oinarria garrantzitsua da. Hori gabe, ezin duzu aurrera egin. Mugatuta egongo zara.

Estatu Batuetara etorri aurretik, neure kabuz ikasi nuen. Gramatika-liburu bat erosi eta klaseetara joan nintzen institutu pribatu batera. Entzumena lantzeko ikastaro bat egin nuen. Beldurgarria izan zen. Ezin nion jendeari ulertu. Bizkor hitz egiten zuten eta haien ebakera edo ahoskera ezberdina zen. Guk britainiar ebakera genuen aurrez ikasia. Hilabete geroago, alde egin nuen eta istorio laburrak irakurri neure gramatika-liburuan. Hiztegia eta gramatikak kontsultatzen nituen ulertzeko. Gramatika-liburu asko erabili izan dut.

Geroago, irakurmena lantzeko ikastaroan sartu nintzen. *Time* eta *Newsweek* aldizkariak erabiltzen genituen. Oso neketsua gertatu zitzaidan. Artikuluak oso astunak ziren. Ezin nuen ulertu irakurtzen nuena. Hiru ordu pasa eta orrialde erdi bat besterik ez nuen irakurtzen. Klase hura oso etsigarria zen. Lehenengo gramatika eta lexikoa ikastea garrantzitsua zela konturatu nintzen. Momentu erabakiorra izan zen hura. Klasea bertan behera utzi eta gramatika eta lexikoa ikasi nituen neure kontura.

Lehenengoz Estatu Batuetara etorri nintzenean, komunitateko hizkuntz programan hasi nintzen

ingeleseko ikastaro bat egiten. Astia nuen, eta amerikarrak atzerritarrengandik hurbil zeuden ez bazuten jariotasunez hitz egiten. Halaber, TOEFL azterketa egitea ere erabaki nuen, neure burua gramatika eta lexikoa ikastera bultzatzeko. Garai hartan, oso nekeza zen jendeak esaten zuena ulertzea. Nekien hiztegiak baliatuz asmatzen nuen esanahia. Orain errazago ulertzen dut, eta horrela gramatikaz jabetzen saiatzen naiz. Irakurtzen dudanean ere, arreta jartzen diot gramatikari. Ezeroso sentitzen naiz ezin badut zehatz-mehatz ulertu. Gramatika ikastea funtsezkoa da. Esanahian bakarrik kontzentratzen bazara, ezin duzu aurrera egin.

Lexikoa ere garrantzitsua da. Korean nengoenean, ezagutzen ez nituen hitz guztiak begiratu eta koadernotxo batean apuntatzen nituen. Egunero hamar hitz buruz ikasten saiatzen nintzen. Baina ezin dira hitzak gogoratu, ez badira erabiltzen. Orain, telebista ikusi eta albisteak entzuten ditudanean, hiztegiari jartzen diot arreta. Ahoskeratik saiatzen naiz hitzak asmatzen. Gero, hiztegia begiratu edo senarrari eskatzen diot azaltzeko.

Aurrerapenik egin dut. Ez dut arazorik egoera arruntetan jendeari ulertzeko eta hitz egiteko. Baina ez nago zeharo pozik. Zehatz-mehatz ulertu nahi dut ingelesa. Ingelesa konkistatu nahi dut. Anbiziotsua naiz. Ahalegin handiagoa egin behar dut. Garrantzitsua da urratsez urrats ikastea, errazagotik zailagora. Hasieran konfidantza handiegia nuen. Askok nekiela pentsatu nuen eta ez nion jaramonik egin oinarritzko ingelesari. Klaseetara joatea ere garrantzitsua da. Ikastera bultzatzen zaitu eta sistematikoa da...”

3. eranskina

Hizkuntz ikasle onaren definizioa

Ondorengo definizioa Naiman, Fröhlich, Stern eta Todesco-ren ikerketan oinarritua dago (*The Good Language Learner*; Ontario Institute for Studies in Education, 1978). Bigarren, hirugarren eta batzuetan laugarren hizkuntzaren bat arrakastaz ikasitako helduak elkarriketatu zituzten. Ondorengo, hizkuntz ikasle horiek erabilitako estrategien zerrenda da.

Hizkuntz ikasle onek berei komeni zaien ikasteko estiloa aurkitzen dute: Atsegin ez duten ikaskuntz egoeran daudenean, gai izaten dira beren behar pertsonaletara moldatzeko. Zerbait beti ikas dezaketela uste dute, edozein egoeratan. Halaber, badakite nola nahiago duten ikasi eta beren ikasteko moduari komeni zaizkion ikaskuntz egoerak aukeratzen dituzte.

Hizkuntz ikasle onak aktiboki inplikatzeko dira hizkuntzaren ikasprozesuan: Ohizko hizkuntz klaseez gain, hizkuntza erabili eta ikasteko aukera emango dieten ekintzak planifikatzen dituzte. Badakite praktika oso garrantzitsua dela. Batzuetan, ideiak ezagunak zaizkielako aukeratzen dute ekintza jakin bat. Beste batzuetan, beren arazo berezientzat lagungarri gertatuko zaizkien ekintzak aukeratzen dituzte. Normalean egiten ez dituzten gauzak ere egiten dituzte sarritan, beren bigarren hizkuntzari buruz informazio gehiago lortzeko.

Hizkuntzak nola funtzionatzeko duen asmatzen saiatzen dira hizkuntz ikasle onak: Ebakerrari, gramatikari eta hiztegiari jartzen diote arreta. Ebakera hobetzeko, gramatika eta lexikoa ikasteko teknika onak garatzen dituzte. Esate baterako, ikasle batzuk hizkuntz soinuak imitatzen saiatzen dira, benetako hitzak erabili gabe. Hitz berriak ikasterakoan, beste ikasle batzuek objektua irudikatzen dute buruan. Hitzak beren jatorrizko hizkuntzako hitzekin konparatzen dituzte, zer ezberdintasun duten ikusteko.

Hizkuntz ikasle onek badakite hizkuntza komunikatzeko erabiltzen dela: Teknika onak izaten dituzte entzumena, mintzamina, irakurmena eta idazmena praktikatzeko. Hizkuntz ikaskuntzaren lehen urratsetan, ez dira arduratzen akatsak egiteagatik. Hitz egin eta jariotasuna lortzen saiatzen dira. Tokian tokiko hiztunekin hitz egiteko aukerak bilatzen dituzte.

Hizkuntz ikasle onak detektibe onak bezalakoak dira: Beti dabilta hizkuntzak nola funtzionatzeko duen ulertzeko lagungarri gerta lekizkiekeen pisten bila. Asmakuntzak egiten dituzte eta zuzentzeko eskatzen diote jendeari, akatsik egiten badute. Berek esaten dutena besteek esaten dutenaz konparatzen dute. Ikasi dutena apuntatu egiten dute eta hartaz gogoeta egiten. *Hizkuntz ikasle onek ikasgai duten hizkuntzan pentsatzen ikasten dute.*

Hizkuntz ikaskuntza ez dela erraza ohartzen dira hizkuntz ikasle onak. Etsipen-sentimenduak eta konfidantza-falta gaintzen ahalegintzen dira.

Autorea

Anita Wenden ESLko Irakasle Laguntzailea da York Collegen (City University of New York); unibertsital ikasleentzako ESL programaren koordinatzailea da. Metodologia ematen du (“Facilitating Autonomy in Second Language Learners”) TESOLeko Master-programan Columbia Unibertsitateko Teachers' College-n. Ikasleen trebakuntzarako materiala garatu eta probatzen ere ari da, baita bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan metaezagutza ikertzen ere.